

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2024ko ekainak 7 · 1316 zenbakia



## KIROLA EUSKARAZ BIZI ARGITXOREN ERRITMORA

# 2 MÓ 99€

erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



## MULTIÓPTICAS

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

[www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com)





## ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO

ARRATE HOMES • EIBAR

Errebal plaza ondoko  
eraikuntza berriko etxebizitzak.  
Garajea • Gimnasioa  
Gourmet aretoa • Trastelekua

Zatuz Neinor Store-ra  
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar

**ETA EZAGUTU GURE PROMOTIO BERRIAK**

\* Komunitate lege-oinarriak

 **Neinor** HOMES

**900 11 00 22 • neinorhomes.com**

**16** EKAINA  
2024

**EIBAR**  
UDAKO BIGARREN  
ESKUKO  
AZOKA



udalsarea 2030  
udalaren zehaztasunaren erabilera



### Errebal plaza, 10:00etatik 14:00etara

Erreserbatu mahai bat behar ez dituzun eta eguera onean dauden gauzak saltzeko. Eibarko elkarte, kasterke eta herritar guztek har dezakete parte. Bi aukera:

1- Erreserbatu salmenta-postu bat (mahai bat) eta zerorrek saldu erabiltako zure gauzak. Nahitazkoa da aurrez erreserba egitea.

Izena emateko epea: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra.

2- Laga zure objektuak gordailu-salmentan (10 gehienez) eta antolakuntza-taldekoak arduratuko dira salmentaz. Ezin dira eman: arropa eta osagaiak, bolumen handiko altzariak... Egunean betan eraman behar dira gauzak 9:00etatik 10:00etara. Ez dago izena eman beharrik.



Informazioa eta izen-emateak  
Información e inscripciones  
[www.merkabi.eus/eibar](http://www.merkabi.eus/eibar)  
tel. 943 670 249

### TAILERRA: ETXETKO ARGITSUAK

11:30 - 14:00, Errebal Plaza, 00AN

- Tailerra: 3-12 urteko haurrentzat (5 urterik beherakoak heldu bidez lagunduta).
- Iraupena 30 min. Bost banda aukeran, 11:30etik 13:30era.
- Plaza mugatuak.
- Hartu zure banda egun berean!

Eguera onean dauden erabiltako objektuak berriz ere erabiliz, hiri-hondakin-gutxiago sortzea lortzen dugu

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Casino Artista Eibarres Billar Klubak 3. San Juan Billar Txapelketa antolatu du, eta taldeko Ricardo Robles, Rikar Ereña eta Jon Alberdirekin egoteko aprobetxatu dugu Billar Klubaren jarduna ezagutzeko.

etakitto.eus



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ana Aranberri

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



## Hortik esanak



## Galdaramiño goeratik eskertza

Galdaramiño goera bukatu berritan, proba antolatzen lagundu diguten talde eta pertsoneri eskertzeko unea iritsi zaigu. Hona hemen zerrenda: Eibarko Udala, Eibarko Klub Deportiboa, Urkiko Jai Batzordea, Atzegi taldea, Unbeko kirolguneko langileak, herriko prentsa -...eta kitto! eta DV tartean- eta buru belarri ibili den bolondres taldea. Guztion sentitzen dugun proiektua guztion artean egiten dugulako doa aurrera eta, horrelako kirol proiektu bat giza harremanak ehunduz burutzen delako, denei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Bukatzeke, aurtengo edizioan, eta jadanik hamalau igaror dira, emakumeen parte hartzea azpimarratuko genuke, % 25a izan baita, 84 parte hartzaileetatik 21 hain zuzen ere. Zorionak irabazleei ere, Unai Fernandez eta Oihane Sarasqueta, taldeko bolondresak izateaz gain, gure enbaxadoreak ere badirelako.

Galdaramiño goerako taldea

## Ekainak 14: Odol-emailearen Eguna

Hilaren 14an Odol-emailearen Munduko Eguna ospatuko dugu. Horrelako egunak beharrezkoak dira herritarrok jardun horren garrantziaz jabetzeko, batez ere ikusten dugunean azken aldian arlo horretan eman den beherakada. Ekimen horrek guztioi eragiten digu, odolaren beharra guk geuk ere edozein momentutan izan dezakegulako. Bezperan, hilaren 13an, odola emateko hurrengo txanda izango dugu gurean, hamabostean behin Untzaga jubilatutxan egiten dugun bezala. Ez ahaztu ordua hartzea 943007884 zenbakian edo, bestela, ekainetik aurrera aukera dago [www.gotatanta.eus](http://www.gotatanta.eus) web-ean ere hartzeko.

Eibarko Odol-emaileen Elkarte

Gugandik hurbilen dauden erakundeak dira, denon diruez elikatuak, baina ia ezer ez dator itzulian sortzaileongana. Kulturako diruak kulturaren kudeaketan galtzen dira, udaletxe bakoitzak sortu duen euskara eta kultur teknikarien sare erraldoian; haien soldatek xurgatzen dituzten milioika euro horien azpiko lehortean bizi gara. Eta hori ere politika da; politika anti-kulturala. Izan ere, paradoxa bat ari da gertatzen hemen: udaletxe guztietan daude kultura eta euskara teknikariak, eta, aitzitik, euskara atzeraka doa, eta herrian kultura gabezia gero eta nabarmenagoa da. Azken aldian politika ofizialari alternantzia eman nahi dion gazte belaunaldi bat sortu da, baina, tamalez, sortzaileari ematen dioten tratua berdin-berdina da: `Autogestioa da gurea, udalari ez diogu dirurik eskatzen, zure aurkezpena datorren jendeak bere borondatea jarriko du zuri ordaintzeko`. Baldintza xume bat jarri nien: lortu 300 euro, saiatu zaitzete, egin horretarako lana, eta pozik joango naiz. Ez nuen beste deirik izan haien aldetik.

PAKO ARISTI, idazlea

Zuhaitzek bizilagunentzat onura handiak badituzte ere, moztu ohi dira, segurtasunaren edo hirigintza planen izenean. Hori kimaketa basatia da, arbolizioa. Zuhaitzak izugarrizko ahalegina egin behar du aldiro adarra hazteko, eta ahuldu egiten da. Adar horiek handituko dira eta zama hartuko dute, baina ahalduta daude. Errepideak kudeatzen dituenak usteko du adar horiek erortzeko arriskua dutela. Hortaz, handik bi urtera berriro egingo dute beste kimaketa basati bat. Urteen poderioz zuhaitza erabat ahulduko da, ondoek jango dute, eta erabakiko dute guztiz mozte. Ekosistema artifizial eta osasungaitza da hiria, eta autoa da haren erdigune.

ALAZNE IZULAIN, Artiako Lagunak elkarte

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PANPARRERIXA** → Harrokeria. "Erromerixetan etenbako panparrerixetan jarduten eban".

**PAPA** → Ume-hizkeran, ogia. "Ez da bota bihar lurrera papa, pekatua dalako".

# 1968

## Barrakak Txaltxa Zelaian

Lehen ere barrakak etortzen ziren urtero, San Juan jaietarako. Argazkia egin zuteneko Txaltxa Zelaia eta oraingoa ezberdinak izan arren, atrakzioa igo diren poz aurpegiak ez dira asko aldatu, oraingo gaztetxoekin alderatuz gero.  
PLAZAOLA



### Farmaziak

**BARIXAKUA 7**

**EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)

**ZAPATUA 8**

**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

**DOMEKA 9**

**EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)

**ASTELEHENA 10**

**EGUNEZ | Mendiñueta** (Urkizu, 6)

**MARTITZENA 11**

**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**EGUAZTENA 12**

**EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)

**EGUENA 13**

**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

**BARIXAKUA 14**

**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)

**GAUEZ BETI**, 2024an,  
**Lekunberri** (Isasi, 31)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Conchi Garcia Fernandez**. 93 urte. 2024-05-31.
- **Margarita Beristain Aldalur**. 99 urte. 2024-05-31.
- **Iñaki Perosanz Garmendia**. 63 urte. 2024-06-02.
- **Enrique Lapeyra Agirreolea**. 67 urte. 2024-06-03.
- **Floren Sarasketa Retolaza**. 82 urte. 2024-06-04.



## 500 bat herritar elkartu ziren Palestinaren alde domekan egindako martxan

Bostehun lagun baino gehiagok hartu zuten parte domekan, Ermuko eta Eibarko herri plataformek Palestinako herriari babesa emateko antolatatu zuten manifestazio bateratuan. Martxa bi zutabetan banatu zen, bata Ermuko plazatik eta bestea Untzagatik irten zirelarik, eta herri bien artean dagoen Sallabenteko frontoian egin zuten bat. Amaieran egindako ekitaldian Patxi Dinamita musikariak emanaldia eskaini zuen. Gainera, orain dela zortzi hilabetez hona Gazako herritarrek eguneroko pairatzen ari diren etenbariko

bonbardaketen alerta gogora ekartzeko, sirenak jo zituzten, “Israelgo bonbek denbora horretan hil dituzten ia 40.000 pertsonen gorputzak” irudikatzen ziren bitartean. Salatu zuten, “Israelek nazioarteko zuzenbidea, Nazioarteko Justizia Gortearen aginduak, NBERen ebazpenak, giza eskubideak eta bizitza zapaltzen ditu”. Era berean, “gure gobernuak zigor ekonomikoak ezarri eta genozidio honen erantzuleekin harreman komertzialak eten arte, ez dutela erokeria hau geldiaraziko” adierazi dute.

## Astebururako antolatutako jarduerak trafikoari eragingo diote

Auto-gidariak kontuan hartu beharreko bi ohar egin dituzte Udaltzaingotik, antolatutako kirol eta musika jarduerak eragingo dituztelako: gaur Astelena frontoian egingo den Boxeo Gaua dela eta, debekatuta egongo da Isasi kaleko 20. zenbakiaren aurrean aparkatzea. Eta bihar Untzagan Izarok emango duen kontzertua dela eta, Isasi, Juan Gisasola eta Egogain kaleak ibilgailuentzat itxiko dira, 20:30etik kontzertuak amaitu arte.

## Gidabaimena euskaraz ateratzen duten gazteak sarituko ditu Akebaik

Eibarren Akebaik, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin elkarlanean, eta herriko autoeskolen laguntzarekin, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzen duten herriko gazteak (16-29 urte bitartekoak) sarituko ditu. Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak abian jarri duten “Gidabaimenak euskaraz!” ekimenaren bitartez, zozketa bidezko erosketa-bonoak emango ditu Akebaik. Azterketa teorikoa euskaraz gainditu eta eskaera aurkeztu duten guztien artean egingo da zozketa, eta hiru sari egongo dira: 250 euroko erosketa-bonoa, 100 eurokoa eta 50 eurokoa. Informazio gehiagorako eibarrenakebai@gmail.com helbidera idatzi edo 943 708426 telefonora deitu daiteke.



## Inguruko narrastiak ezagutzeko mendi-irteera

Domekan Eibar inguruko narrastiak ezagutzeko mendi-buelta gidatua egingo du Eibarko Baso Biziak elkarteak, Aranzadiko Ander Izagirreraren laguntzarekin. 09:30ean Untzagan hasiko den irteeran parte hartzeko, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera idatzi behar da.



## Migratzaileen dokumentazioa tramitatzeari buruzko informazio-hitzaldia

Eibarren bizi eta dokumentazioa tramitatzeko egoeran dauden herritarrengana atzeritartasun-bulegoa gerturatzeko “Extranjería cerca de ti” izenburua duen saio irekia antolatu dute martitzenerako, 18:00etan Errebal Plazan. Hitzaldiak bi zati izango ditu. Lehenengoan, adituek modu laburrean azalduko dute zer izapide egin behar diren, eta zeintzuk diren prozesuaren zailtasun nagusiak. Bigarren zatian, berriz, bertaratzen direnek galderak egin ahal izango dituzte. Gaiari buruzko profesionalak eta adituak egongo dira bertan. Bestalde, nahiz eta hitzaldia dokumentazioa erregularizatu nahi duten pertsonen zuzenduta egon, gaian interesa duen edozeinentzat atek zabalik egongo dira: “Solasaldi hau aukera ezin hobea da pertsona migratzaileen egoeraz gehiago jakin eta administrazioa hurbiltzeko, eta dokumentazioa izapidetzeko prozesua hobeto ulertzeko”.

## Eibarko Pentsiodunen Taldeak atsedena hartuko du, irailaren 16an bueltatzeko

Astelehenean egin zuten Eibarko Pentsionista Taldekoek ikasturteko azken elkarretaratzea, pentsio duin eta publikoak eskatzeko. Ekitaldian 120 bat lagun elkartu ziren eta, kurtsoa agurtzeko, pankarta guztiak atera zituzten batera, taldearen aldarrikapen nagusiekien.

Irailaren 16ra arte agurtu baino lehen, domekan egingo diren Europako Parlamenturako hauteskundeetara begira Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak egin duen idatzia irakurri zuten, alderdi politikoei egindako eskaerak gogora ekartzeko.



## ELA gaixotasuna daukatenei laguntzeko 2.700 euro bildu ditu ADELA-Gipuzkoak

La Red Teatrok apirilean Coliseon taularatu zuen “Los olivos pálidos” lanari eta kamiseten salmentari esker, 2.700 euro batzea lortu dela jakinarazi dute ADELA-Gipuzkoa elkartetik. Hori dela eta, bere esker ona azaldu nahi diete antzerkirako sarrera edo kamiseta erosita laguntza eman duten herritar guztiei. Diru hori Gipuzkoan ELA gaixotasuna daukatenei laguntzeko erabiliko da.





## Udako bigarren eskuko azoka egingo da Errebalen ekainaren 16an

Azokan postu bat ipinita parte hartzeko beharrezkoa da alde zurretik izena ematea, eta horretarako epea zabalik egongo da martitzen arte (ekainak 11). Zita 943670249 telefonora deituz, edo [www.merkabi.eus/eibar](http://www.merkabi.eus/eibar) helbidean dagoen formularioa betez hartuko da.

Erabilitako gauzak saltzeko interesa dutenek bi modutara egin ahal izango dute. Horrela, postu bat (mahai bat) erreserbatu ahal izango da, bakoitzak nahi dituen objektu erabiliak saltzeko; edo, bestela, erabilitako objektuak gordailu-zerbitzuan utzi ahal izango dira (gehienez ere egoera onean dauden 10 gauza, pertsona bakoitzeko) eta antolakuntzako taldea arduratuko da objektu horiek zaintzeaz

eta saltzeaz. Horretarako, saldu nahi diren gauzak egunean bertan eraman beharko dira azokara, 09:00etatik 10:00etara bitartean. Azaldu dutenez, “objektu horiek gordailu-zerbitzuan geratuko dira erregistratuta, saltzaileak egokitzat jotzen duen prezioarekin, eta salgai jarriko dira. Kasu honetan, ez da onartuko arroparik, erabilitako osagarririk, eta ezta tamaina handiko objekturik ere”.

Era berean, adierazi behar da, oraingo honetan, eta azoka uda partean egingo denez, lehentasuna emango zaiela urtaro horrekin eta oporrekin zerikusia duten objektuei eta, besteak beste, honako hauek salduko direla: kiroleko, bidaietako eta hondartzarako ar-

lazo arrakasta ikusita, bigarren eskuko udako azoka antolatu du Udalak berriz ere, “objektuek bigarren bitzita bat izan dezaketela eta beste pertsona batzuek berrerabil ditzaketela kontzientziatzeko”. Jarduera Errebal Plazan egingo da, ekainaren 16an, 10:00etatik 14:00etara eta, besteak beste, haurrentzako tailer bat antolatu da, material birziklatuekin argidun etxetxo bat egiteko.

tikuluak eta liburuak, eta musika- edo zinema-artikuluak. Beraz, postuak adjudikatzean, lehentasuna emango zaie baldintza hori betetzen dutenei. Azoka ixtean, 14:00etan, saltzaileak bertara itzuliko dira salmentaren dirua edo saldu ez diren artikuluak jasotzera. Iaz egindako bigarren eskuko udako azokan 29 izan ziren postuak jarri zutenak, eta beste hamazortzik laga zituzten gauzak gordailu-zerbitzuan, antolatzaileek saltzeko. Guztira ia 700 gauza saldu ziren.

### Haurrentzat tailerra

Bestalde, azoka egunean haurrentzako tailerra eskainiko da, material birziklatuekin etxe argidun bat egiteko. Tailerra 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat izango da, baina 5 urte-tik beherakoek heldu batekin egon beharko dute. Tailerra 11:30ean hasi eta 14:00ak aldera amaituko da, baina plazak mugatuak izango direnez, bost txanda egongo dira aukeran, 11:30etik 13:30era bitartean (Errebalen bertan erreserbatuko da, azoka egunean).





## “Sexu aniztasuna hirietatik at” tailerra egingo da martitzenean Andretxean

2024ko LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Eguna dela-eta, Eibarren egingo den programazioaren berri eman du Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak, eta horren baitan *Sexu aniztasuna hirietatik at* izenburuko hitzaldi-tailerra egingo da martitzenean, 18:00etan, Andretxean, Hiruki Larroxa kolektiboaren eskutik. Saio hori “Eibar LGBTI+ pertsonentzat herri bizigarri eta berdinzaleagoa

egiteko” asmoarekin antolatu dute, eta aurreratu dutenez, “metodologia misto batetik abiatuta, Zisheteroaraua eta hortik at dauden errealitateak landuko dira”. Bestalde, Juan San Martin liburutegiarekin batera irakurketa-gida prestatu dute aurten ere, ekainaren 28an aldarrikatzen diren gaiekin zerkusia duten liburu eta bestelako materialarekin. Gainera Maistrak liburutegian (Andretxean) stand informatibo bat egongo da.

## Kalean arituko dira bihar puntua egiten, Indarkeria sexistari aurre egiteko

*Mataz*ak indarkeria sexistaren aurka ekimenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, “Kaleak gureak dira. Jar diezaiogun #puntuetakitto indarkeria sexistari” egitasmoa antolatu du aurten ere, hainbat herritan. Horrela, Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna dela eta, bihar goizean Untzagan egongo dira puntua egiten, 11:00etatik 13:00era. Jarduera hori parte hartu nahi duen edozeinentzat zabalik dago, eta nahikoa da bertara joan eta han egongo direnekin bat egitea, elkarrekin ehuntzen aritzeko.



## Kristina Telleria bazkideak irabazi du ...eta kitto! Euskara Elkarteak zozketatutako bazkaria Txurruka jatetxean

Kristina Telleria ...eta kitto! Euskara Elkarteak irabazi du bazkiden artean zozketatutako bosgarren oparia: bi lagunentzako menu-degustazioa Txurruka jatetxean. Hurrengo zozketa ekainaren 7an egingo da; Zumaiako Hotel Talasoterapia Zelaian bi lagunentzako opari-bonu bat irabazi ahal izango dute bazkideek. Ber-

tan sartzen dira 90 minutuko zirkuetoa eta denboraldiko menua. Bazkideak dira ...eta kitto Euskara Elkartearen aktiborik handiena eta eskerrak eman eta aitortza eskaini nahi zaie emandako babesarengatik. Elkarteak ZARELAKO GARA bazkide kanpaina dauka martxan eta herritarrak animatu nahi ditu elkarteak bazkide egiteko.





# “Edozein lasterketatan denbora garrantzitsua da, minbiziaren detekzio goiztiarrean bezala”

MARIA AMOR ARAKISTAIN eta LOLA GISASOLA • Minbiziaren Aurka Gipuzkoan



Minbiziaren Aurkako Martxaren 3. edizioa egingo da ekainaren 15ean, zapatuan, Eibarren. Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak antolatzen duen ekimenak milaka lagun bildu ohi ditu eta aurten antzeko parte-hartzea egotea espero dute antolatzaileek.

**M**inbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak Ardantza kaleko 11. zenbakian duen egoitzan egon gara Maria Amor Arakistain eta Lola Gisasolarekin. Ekainaren 15eko martxaren eta elkarteak Eibarren eta Debabarrenean egiten dituen ekintzen inguruan jardun dugu eurekin, eta herritar oro animatu nahi dute martxan parte har dezaten.

## Zer prestatu duzue Eibarko 3. Minbiziaren Aurkako Martxarako?

Eguneko egitaraua goizean goizetik hasiko dugu. Martxa 11:00etan hasiko da, Untzagan, baina aurretik ekintzak egingo dira. Lehenik, martxan parte hartuko duten boluntarioak elkartuko gara, kamisetak erosteko postua zabalduko dugu eta, martxarako berotzen joateko, Kaxa dantza guneko lagunak eskutik zumba egingo dugu.

## Berotu ondoren, nolako ibilbidea jarraituko du martxak?

Untzagatik Fermin Calbeton kalea hartuko dugu eta handik Bidebarrietara joango gara. Gero, Urkizun, Azpiri zegoen tokian, Arraguetarako bidea hartuko dugu, Ibarkuratze pasa eta Errebaletik Toribio Etxe-

barriara joateko. Udaletxe atzetik pasatuko gara eta San Andres pasealekutik Legarrerako bidea hartuko dugu trenbide azpitik pasata. Handik, Amaña baino lehenago dagoen biribilgunera iritsiko gara, Barrenagua kalea igo eta Isasitik Untzagara jaisteko. Hiru kilometro inguruko ibilbidea izango da.

## Eta ibilbidea amaitzean, zer?

Anoa eskainiko diegu parte-hartzaileei. Ura eta fruta emango diegu, indarrak berreskuratzeko.

## Boluntarioak aipatu dituzue. Jende askoren laguntza behar da horrelako ekintza bat prestatzeko?

Bai, noski. Boluntario batzuk beste herri batzuetatik etorriko dira (Debatik, Mutrikutik...). Batzuk bidegurutzeetan kokatzen dira, martxa bideratzeko; eta aurten boluntario gutxiago dagoenez ez dakigu nola egingo dugun, baina beste batzuk garajeetan kokatu ohi dira, autoekin kontuz ibiltzeko. Dena dela, martxaren aurretik Udaltzainak joango dira bidea irekitzen eta ezer txarrik gerta ez dadila zaintzen.

## Beraz, boluntarioak behar dituzue?

Edozein laguntza ongi etorria da, gauza asko zaindu eta egin behar direlako. Herritar guztiei dei egiten diegu martxan parte hartzera eta, ahal bada, boluntario bezala etortzera ere. Horrez gain, babesleen la-



Iñigo Manterola margolari eta eskultoreak diseinatu du aurtengo martxaren kamiseta. EKHI BELAR

guntza ere berebizikoa izaten da. Bestalde, elkarteko langileek egiten duten lan guztia azpimarratzekoa da. Horrelako ekintza bat antolatzea demaseko lana da, ikusten ez den lana, eta egiten dutena txalotzekoa da. **Kamiseta diseinatzeko orduan ere jaso duzue laguntza, Iñigo Manterolak egin baitu diseinua.**

Hori da! Kamisetan ikusten denez, hondarrezko erloju bat marraztu du, denboraren inguruko mezua helarazi nahi izan duelako. Izan ere, edozein lasterketatan edo martxatan denbora garrantzitsua da, minbiziaren detekzio goiztiarrean bezala.

#### **Zeintzuk dira martxaren helburu nagusiak?**

Gizartearen parte-hartzea areagotzea jarduera fisiko solidario baten bitartez, minbizia ikusaraztea gaixotasunaren inguruko tabu soziala ezabatzea eta kirolaren bidez bizimodu osasungarria sustatzea. Tabu sozialari dagokionez, adibidez, kalean minbizia duen ezagun batekin gurutzatzen zara eta ez dakizu berarekin nola jardun, ez dakizu berak zerbait esan nahi dizun... Orokorrean, uste dugu ez dakigula egoera horietan nola ekin. Egia da zaila ere badela. Orduan, naturaltasunez jokatzeko komeni da.

**“Minbiziaren Aurkako Martxa oso garrantzitsua da guretzat, bertan jende ugari hartzen duelako parte eta ikusgarritasuna ematen digulako”**

#### **Hirugarren edizioa ospatuko duzue aurten. Nola-koak izan dira aurreneko biak?**

Oso ondo egon ziren. Lehenengo edizioa 2019an egin genuen, pandemia aurretik, eta jende ugari animatu zen. Iazko edizioan, berriz, kamiseta guztiak saldu genituen, 1.000 inguru, eta jendea kamiseta barik geratu zen. Aurten izen-ematea motelago doa, baina oraindik egunak falta dira eta jendeak erantzutea espero dugu. Horregatik, barixaku arratsaldean Untzagan postua jarriko dugu kamisetak saltzeko. Bestela, Untzagako Jubilatuen Etxean eta gure egoitzan



kamisetak erosteko aukera emateaz gain, rockthesport.com helbidean martxarako izena eman daiteke. Eta, esan bezala, egunean bertan ere, martxa hasi aurretik, Untzagan postua jarriko dugu. Bestalde, kamisetarekin martxarako dortsala jasotzeaz gain, QR kode bat aurkituko duzue eta, bertan sartuz gero, Ixua jatetxean bazkaria irabazteko zozketan hartu daiteke parte.

**Zergatik da garrantzitsua martxa horretan parte hartzea?**

Urtean zehar ekintza ugari egiten ditugu (kanpainak, ibilbide osasuntsuak, hitzaldiak...) eta, gainera, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak doakoak izaten dira eta horrelako ekintzak egiten ditugu horiek finantzatzeko. Aipatu behar da, bestalde, arreta ez zaiola pazienteari bakarrik eskaintzen, familiek ere arreta psikologikoa jasotzen baitute, besteak beste. Horrez gain, elkarteak materiala ematen die beharra dutenei (adibidez, hilabeteak ohean pasa behar dituzten pazienteei), eta hori guztia ordaintzeko herritarren babesa ezinbestekoa da. Zentzu horretan, martxa hau oso garrantzitsua da guretzat, bertan jende ugari hartzen duelako parte eta ikusgarritasuna ematen digulako.

# Billarreko artista eibartarrak

BIDEOA



112 urteko ibilbidea du Casino Artista Eibarresek eta bizi-bizirik dirau oraindik. Egunero biltzen da jendea bere bi egoitzetan, Ibarkurutzen eta Eibarko Bizikleta Plazan, eta bazkideez gain, herritar oro jasotzen dituzte. Tradizio handiko kluba izanik, herrian errotuta egon diren eta dauden ekintzak hartzen ditu, eta jendeak kartetan, xakean eta billarrean egiten du, besteak beste. Azken jarduera horrek bultzada handia izan du azken urteotan eta, bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu Casino Artista Eibarreseko Billar Kluba.

**C**asino Artista Eibarresek Bizikleta Plazan duen egoitzan sartzean taberna eta jatetxea aurkitzen ditugu, baina gune berezi bat dago pasilloa zeharkatuz gero. Oihal urdindun bi billar-mahai daude bertan, Casino Artista Eibarreseko Billar Klubaren joko-eremuan. Ricardo Robles, Rikar Ereña eta Jon Alberdi (elkarteko eta billar klubeko presidentea) aurkitu ditugu han eta billar munduaz jardun dugu eurekin.

Hasteko, atentzioa ematen du zeinen zaindua dagoen bertako materiala. Adibidez, billar-mahaia 34º ingurutan girotuta edukitzen dute berogailu baten bitartez eta mahaia estaltzen duen oihala urterero aldatzen dute. “Bestela, malgutzen doa eta tentsio falta hori asko igartzen da”, diosku Alberdik. Bolak ere hainbatetan aldatzen dituzte, kolpeekin euren ezaugarriak aldatzen doazelako. “Lehiaketetan material guztia izaten da berria”, zehazten du presidenteak.



Hain zuzen ere, azken asteotan aktibitate handia izan da Casinon, klubak antolatzen duen 3. San Juan Billar Txapelketa jokatzeko dihardutelako. 30 lagunek hartzen dute parte eta 15 jokalariko bi taldetan banatu dira. Talde bakoitzean elkarren aurka jokatu ondoren, elkarriketa egin zen unean finalaurrekoak jokatu dituzten hiru billar-jokalarik definituta zeuden, eta falta zen tokia Robles eta Alberdiren artean erabaki behar zen. Ereña, bere aldetik, finalaurrekoetarako sailkatuta zegoen ordurako.

Finala ekainaren 16an jokatu da, domekan. “17:00etan finalaurrekoak jokatu dira eta 19:00etan finala”, azaldu digu Alberdik. Gainera, Casinoko ateak irekita egongo dira finala zuzenean ikusi nahi dutenentzat. “Aforoak lagatzen digun neurrian”, zehazten du presidentek. Hori bai, errespetua eta isiltasuna ezinbestekoak izango dira, billarrean jokatzeko kontzentrazioa nahitaezkoa delako.

### Modalitate ezberdinak

San Juan Txapelketa hiru bandatarra jokatzeko dute. Helburua karanbolak egitea da; eta, karanbolatzat hartuko da jokalariek beste bi bolak tirada berean jotzen dituenean. Baina, balekoak izan daitezten, jokalariek gutxienez hiru banda ukitu behar ditu, desberdinak izan daitezkeenak edo errepikatu daitezkeenak, bigarren bola jo aurretik.

Urtean zehar antolatzen duten beste txapelketan, osteran, billar librean jokatzeko dute. Hau da, jaurtitzen duenak, bolak jotzeaz gain, ez du zertan hiru izkina jo. Norma-



Materiala asko zaintzen dute billaristek. EK>HIBELAR

## >>> Ekainaren 16an, domekan, jokatu da 3. San Juan Billar Txapelketa, Casino Artista Eibarresen

lean, Casinok Ibarkurutzen duen egoitzan billar librean jokatzeko da gehiago, giro erlaxatuagoan jokatu daitekeelako. Izan ere, Alberdiren berbetan, “han billar-mahaia tabernan bertan dago, ez dago aparte, eta zailagoa da isiltasuna egotea”.

Modalitate bata edo bestea izan, billarrean jokatzeko orduan gauza asko lantzen dira. “Arazoak konpontzeko gaitasuna eta frustrazioaren tolerantzia, matematikak (geometria, adibidez), fisika... Gainera, giro osasuntsuan jokatzeko dugu.





Kontzentrazioa ezinbestekoa da billarrean jokatzeko orduan. EKHIBELAR

Beraz, gazteentzat aproposa izan daiteke billarrean hastea”, diosku Robleseak.

#### **Herriko billar tradizioa**

Billarrak aspalditik izan du afizioa Eibarren, eta Casinon partida ugari jokatu dira. “Lehen, Alzaga eta Untzaga joko-aretoetan asko jolastan zen”, gogoratzen du Alberdik. Maila handiko jokalariek izan ditugu herrian eta, billar-jokalariek aukera gehiago eman asmoz, Casinok Billar Kluba sortu zuen orain dela sei urte. “Casinoko zuzendaritzan aldaketa egon zen eta billarreko lagun batzuk sartu ginen. Orduan, Billar Kluba sortzea erabaki genuen”, azaldu digu presidenteak. “Billarrean egin duen jende asko dago Eibarren. Batzuek, umeak eduki ondoren, jokatzeari laga zioten, baina umeak hazi direnean berriz itzuli dira batzuk”.

Casinok 360 bazkide ditu eta 50 lagun inguru daude Billar Klubean. “Kopurua hazi egin da poliki-poliki, eta beste billar-mahai bat erosi

## **>>> Euskal Herri osoko 50 lagun inguruk osatzen dute Casinoren Billar Kluba**

## **>>> Hiru bandatara eta billar librean jokatzen dute Casinoko billar jokalariek**

behar izan dugu”, diosku Alberdik. Beraz, ez dakite kopuru hori askoz ere gehiago hazi daitekeen. Gainera, Gipuzkoan antzeko klubik ez dagoenez, Donostia, Arrasate, Bergara, Azpeitia eta beste hainbat tokitako jendea etortzen da Eibarrera billarrean egitera, baita Bizkaitik ere. “Gure asmoa maila nazionalean jokatuko duen taldea ateratzea da”, aitortu digu presidenteak.

Adinari dagokionez, bazkide gazteak 27 urte inguru ditu eta zaharrenak 83, baina egia da orokorrean jende helduak jokatzen duela billarrean. “Horrek erakusten du edozein adinekin egin daitekeela billarrean”, Roblesen berbetan.

Klubeko kide gehienak gizonezkoak dira, baina poliki-poliki gero eta emakume gehiago ari dira apuntatzen. “4-5 emakume etorri ohi dira. Pena da, gehiago izatea gustatuko litzaigukeelako”, aitortzen du hirukoteak. Nahi izanez gero, behintzat, mahai urdinak prest daude billarreko artista guztientzat.



FELIX MORQUECHO

## Zenbakiak

Zaharra sentitzen da Jone. 40. urtebetetzeak ez dio bakarrik poza eman. Be-rrro-gei! Hori marka! Bere albotik Karmen pasatzen ari da eta irrifarra ezin du ezkutatu. 92 ditu eta begiratu zelako azala duen, ia ez du zimurrik... 92 urte edukitzeko. Pentsa, bera jaio zenean Eibarrek 12.000 biztanle inguru zituen, gutxi. Beno, gutxi gaurko 27.000 eibartarrekin konparatuta. Orain asko gara... baina gehiago ere izan ginen, ia 40.000 Joneren gurasoak elkarrekin ateratzen hasi zirenean.

27.000 jende piloia da. Kalera atera eta batzuetan gehiago ere ematen du. Baina egun batean begiratzen duzu foball-zelai horietako edukiera eta, hara, 60.000 eserleku. Zas!, asko ginela pentsatzen genuen eta begira, den, den, denak joanda ere, ume txikiak sartuta eta egoitzetako zaharrenak ere, ez genuke zelai horretako erdia ere beteko. Baina 60.000 eserlekuko estadio hori txikia da 80.000 edo 90.000 lagun sartzen dituenen ondoan.

Horrelako zenbakiak ikustean gure Astelena pilotalekuko irudia etortzen zait burura. Gabonetan, San Juan egunean... hori giroa! Frontoia zaletuz gainezka eta punta puntako pilotariak kantxan. Jende piloia eserleku eta pasilloetatik. Zenbat? 1.200. Aurreko eszenatokien ondoan huskeria, baina Aspeko lagunentzat lana ematen du sarrerak banan-banan saltzea, batez ere beste egun horietan, frontoia betetzen ez denean.

Orduan ere sarreraren bat pilotari gazteei ailegatzten zaie. 13 urteko atzelari horrek, Mikelek, pilotariak heroiak bezala ikusten ditu. Debutatu berri dagoen nafar horri itxura ona hartzen dio. 19 urte ditu, Mikel baino apenas 6 urte zaharrago, baina bere karnetak nagusia dela dio, zera... zaharra. Zaharra Mikelen begietan, baina Jonek begiratzen duenean ume bat dela dio. Eta atzetik, irrifar bat erakutsiz, Karmenek guztiak ikusten ditu: "Gaztetxo halakoak...".

**"27.000 jende piloia da. Foball-zelai horietako batek 60.000 eserleku dituenen, ezer gutxi. Zelai horretako erdia ere ez genuke beteko, eibartar guztiak joanda ere"**



MODA  
ETA  
EDERTASUNA

2024/06/07

2021/05/12

# Gozatu modarekin!!!

## Sorbaldak eskulturalak

Sorbaldak eskulturalak eramaten dira, eta askotan trianguluarra den irudi bat profilatzen dute, 80ko hamarkadako estiloa gogoratuz; sorbaldak oso markatuak gerriko finekin kontrastatuz.



## Zenbat eta motzagoa hobeto

Minigonak eta prakamotzak zenbat eta motzagoak, orduan eta hobeto. Denboraldi honetan, zalantza barik, hankak erakustea tokatuko da.



## Pirata galtzak

Joan den udaberrian aurreratu genuen eta 2024an berriro berresten dugu: pirata galtza, belaunaren gainetik, bueltan da. Batzuek kirol-bertsiorik onena proposatzen dute, baita txandalaren elastikoarekin ere, alkandorekin eta blazer laburrekin konbinatzen dena, jostintzari bira fresko bat emateko.



## Galtzerdiak

Azkenaldian gehien ikusten ari garen osagarria, seguruenik, armairuko apalena da: galtzerdiak. Orain galtzerdiak ez dira oinak berotzeko pieza soilak, eta, desirazko objektu bihurtu dira. Mokasinekin eramaten diren galtzerdi zuriez haratago, aurtengo joera dira galtzerdi altu samarrak, eta oinetakomota guztiekin konbinatzen da.



**CAPI** Bidebarrieta, 5 943 201 547  
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU  
Intensitate handiko ultrasoinu fokalizatua

LIFTING KIRURGIKOAREN BENETAKO alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISAren ERAGINKORRA DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK  
isterrak / ipur-masailak  
besoak / sebelaldea

Azalarren ELASTIKOTASUNA hobetzen

943 821 577  
Zuloagarren, 1

**GRATZINA**



### Koloreak

Oro har, pastel-koloreak erabiltzea lehenesten duten proposamen batzuen aurrean gaude, eta, bereziki, urdin argia, hori leuna edo arrosa argia modan daude. Berdeetan eta laranjetan, alternatiba indartsuak daude, eta oso kontraste handia dute paleta metalizatuekin.



### Tenis pulserak

Urte askoan une berezietarako gordeta egon zen arren, bitxi honen glamour kutsua galtzen ari da, egunero luxuzko zerbait bihurtzeko. Pieza denboraz kanpoko eta diskretua da, eta edozein janzki esfortzurik gabe nabarmentzen du. Bakarrik edo konbinatuta, ilara distiratsu horrek ederto apaintzen ditu gure besoak.



### Koloredun zapatillak


2024 honetan, kolore alai eta eklektikoko zapatilak dira protagonista nagusiak.

Adidas Samba zuriak eta beltzak pare bat urte daramatzate joeren buru, eta street style eta sare sozialetan oraindik ere asko ikusten dira. Hala ere, aurten Adidas Gazelle eta Handball Spezial modeloek, arrosa, berdea, horia edo urdina bezalako tonalitateetan, arrakasta handia lortu eta beste guztien gainetik jarri dira.



### Poltsak

Oro har kolore ilunak gailenduko dira aurten, eta gehien eramango diren osagarriek edozein estilismori kolore biziko nota bat jartzera gonbidatzen gaituzte. Bestetik, udaberri-udako joerarik absolutuenetako bat tamaina erraldoiko poltsa da.






**Brillodun bailarinak**

Kirol-zapatilak funtsezkoak izan dira luzaroan gure eguneroko looketan. Hurrengo denboraldiari begira, ordea, badirudi *bailarinak* izango direla protagonista berriak. Hala ere, ez dira laurogeita hamarreko hamarkadako bailarina klasikoak. Moda silueta minimalistetan eta arropa oso erosoetan oinarritzen den garai honetan, dibertigarria da dibertsio- eta nortasun-ukitu bat eranstea osagarrien bidez, batez ere oinetakoen bidez. Gainera, uda sasoi honetan bailarina batzuk gailentzen dira besteen gainetik: baletako bailarinak.



**“Skinimalismo” delakoa**

Skinimalismoa gorantz doan beste joera bat da, larruazal sinple eta minimalista zaintzeko errutina sustatzen duena, osasunean eta argitasun naturalean oinarritua. Produktuen kalitatea lehenesten da kantitatearen gainetik, funtzio anitzeko produktuak erabiliz eta kosmetiko gehiegi erabili gabe.



Makillaje-joerei dagokienez, edertasun naturalaren aldeko apostua egiten da: ezpainei bolumena emango dieten ezpainetakoak erabiltzeko joera dago, eta baita begirada nabarmentzen duten delineatzaileak eta maskarak erabiltzekoa ere.

**Laguinda**  
-JANTZIDENDA-  
Bidebarrieta, 18  
943 20 84 41

**IBONE**  
ESTETIKA  
ROMUALDO GALDOS  
943 20 16 01

**SOUL**  
estilistak  
Errebal, 20  
www.peluqueriasoul.com  
943 567 232

Bidebarrieta, 1  
943 24 75 68  
943 44 73 13  
naturacbddeibar  
**NATURA**  
CBD

# Latia emon ingurumenaren alde

Eguaztena (ekainak 5) Ingurumenaren Eguna izan zela eta, birziklatutako latekin egindako muralak ikusgai jarri zituzten Untzagan. Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak eta Debegesak, Eibarko Udalarekin lankidetzan antolatutako Latia emon! ekimenaren baitan, Eibarko hamabost entitatek egin dituzte hormairudiak: San Andres zaharren egoitza, Egogain Gerontologia Zentroa Egoitza, Otezuri Egoitza, Amaña Herri Ikastetxea, Arrateko Andra Mari HLHI ikastetxea, Urkizu HLHI ikastetxea, Eibar BHI Jardifneta, Eibar BHI Isasi, Kalexka, Maria Fundazioa, Zabaltzen Sartu eta Aubixa. Ekainaren 16ra arte, hormairudiak Untzagako gizarte zentroan ikusi ahalko dira, bertan ipini duten erakusketan.



Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



# “Burua da konkistatzaile batek izan behar duen ezaugarririk garrantzitsuen”

JUNE GOMEZ • ‘El Conquistador del Fin del Mundo’ lehiaketako parte-hartzailea



Eibarko parte-hartzailea izan dugu ETB2 katean ematen duten ‘El Conquistador del Fin del Mundo’ telebista-saioaren 20. edizioan: June Gomez ‘Junego’. 20 urte ditu, lehen aldiz eman du izena lehiaketan parte hartzeko eta Patagonian abentura horretaz gozatzeko aukera izan du. Gozatu eta sufritu, muturreko egoerak ere bizi izan dituztelako. Orain, etxera bueltan, telebistaren beste aldetik gozaten du abenturaz.

**E**kainaren 24an amaituko da ‘El Conquistador del Fin del Mundo’ lehiaketaren 20. edizioa eta Junek ezin izan digu sekreturik aurreratu, baina han bizitakoaren berri eman digu. Bide luzea egin arren, ezin izan da finalera iritsi, baina zaleen parte-hartzaile faboritoaren saria jaso dezake saioaren app-aren bitartez egiten den bozketen bitartez.

## Zer moduzko esperientzia bizi izan duzu ‘El Conquistador del Fin del Mundo’ lehiaketan?

Orain dela pare bat aste amaitu nuen ibilbidea Conquisen. Nahiko esperientzia gogorra izan da, baina polita era berean. Azkenean, itxita ez dagoen toki batean sartzen zaituzte, aire librean zaudelako, baina itxita zaude benetan, ezin zarelako bertatik mugitu eta momentu oro toki berean zaudelako. Horren ondorioz, buruari buelta asko ematen dizkiozu eta neure burua hobeto ezagutzeko balio izan dit. Gainera, bertan egiten dituzun lagunekin harreman estua sortzeko balio du.

## Gainera, muturreko egoerak biziarazten dizuete.

Hori da! Janaririk gabe, haitz baten gainean zaku barruan lo egiten... Beno, hori taldeen arteko lehia

galduz gero; irabazten baduzu, ‘kanpamendu aberatsen’ lo egiteko aukera duzu eta han askoz hobeto lo egiten duzu.

## Hori kontuan hartuta, nola bizi izan duzu lehiaketa lagatzeko unea?

Azkenean, lehiaketa pertsona bakar batek irabaziko du. Nirekin zegoen jendea ni baino askoz ere potenteagoa zela ikusten nuen eta, orduan, esperientzia amaitzeak pena ematen badu ere (azken unera arte bizi nahi duzun esperientzia delako), agurra oso pozik hartu nuen. Beno, pozik ez dakit, baina ondo bai, asko gustatu zaidan esperientzia izan zelako. Azken duelua nahiko eskasa izan zen, baina tira.

## Kondorren taldean egon zinen lehenik eta bateraketara iritsi zinen. Ibilbide luzea egitea espero zenuen?

Hasieran ez nuen espero, baina immunitatea niri ematen hasi zirenean urrun iritsi ahal nintzela ikusi nuen. Oso polita izan da, gauza ezberdinak bizitzeko aukera izan dudalako. Batetik, taldean, Kondorrek; eta bestetik, arlo indibidualean, bateraketaren ondoren.

## Aldaketa asko dago egoera bien artean?

Aurten uste dut ez dela hainbestekoa izan, bi talde-tako jendea bakarrik iritsi delako bateraketara. Orduan, taldean zaudenean harreman estua egiten





Conquis-en izan duen esperientziarekin oso pozik dago June Gomez. EKHI BELAR

dituzenez, bateraketara iristean harreman horiekin jarraitzen duzu eta ez duzu zure taldean egon den inor kaleratzeko izendatzen. Kondorrok amets bat genuen: finala taldekideen artean lehiatzea. Beraz, hori horrela izateko, besteak kaleratu behar genituen. **Harreman estuak egiten dira, baina lehiaketa da azken finean. Zer gailentzen da?**

Lehia gailentzen da, zure lagunak zapaltzen ez dituzun bitartean. Bakoitzak bere esperientzia nahi duen moduan bizi dezake eta norberak irabazi dezakeela pentsa dezake. Lagunak zapaltzen ez badituzu eta lagunaren nahiak errespetatuz gero, oreka egokia aurkitu daiteke.

#### **Zer behar da konkistatzailea izateko?**

Burua da konkistatzaile batek izan behar duen ezaugarri garrantzitsua. Buruak esaten badizu ez duela bertan egon nahi, fisikoki bikain egon arren, gorputzak ez du aurrera jarraituko. Eta kontrara, itxuraz fisiko potente bat izan ez arren, buruz ondo baldin bazaude, aurrera jarraituko duzu. Conquis-eko konkistatzaile batek burua oso argi izan behar du, eta bertan egon

**“Conquis-en lehia gailentzen da, zure lagunak zapaltzen ez dituzun bitartean. Oreka bilatu behar da”**

nahi duela eta sufritu egingo duela argi eduki behar du. Era berean, fisikoki prest egon behar da.

#### **Zorte puntu bat ere eduki behar da?**

Zortea edukitzea ere beharrezkoa da. Adibidez, lehenengo saioetan zure gaitasun guztiak agerian geratzen badira, taldekideek kanporatzeko izendatuko zaituzte eta, orduan, oso ona izan arren, egunero duelua lehiatzen baduzu, gorputzak igartzen du.

#### **Esperientzia guztitik zein gauza izan da gogorrena?**

Janariaren eta etxean ditugun gauzen falta. Azkenean, gure egunerokoan ohikoak diren gauzak: ohea, adibidez.

BIDEOA



### **Momentu txarretan nola egin duzu aurrera?**

Hango kideen laguntzarekin. Momentu txarretan eurekin egin dut berba eta animoak eman dizkidate. Horrela, gutako edonork momentu txar bat edukitzen zuenean, elkarri animoak ematen genizkion.

### **Esperientzia horretatik zer ekarri duzu etxera?**

Sufrimendua eta gauzak perspektibarekin ikustea. Batzuetan, zerbait gertatzen zaizunean, momentuan demaseko garrantzia ematen diozu, baina perspektibarekin ikusiz gero, konturatzen zara garrantzitsua dela, baina momentu zehatz horretan bakarrik. Arazoa pasa eta egun berria hasiko dela konturatzen zara.

### **Telebistaren bitartez hango momentu puntual batzuk bakarrik ikusi ditzakegu. Nolakoa zen egunerokoa?**

Nahiko aspergarria. Kameralariak ez zeuden gurekin 24 orduetan eta denbora asko izan dugu libre. Hori bai, ez genuen ezer eskura. Lagunekin berba egin, eta kitto, besterik ez. Gainera, lehiaketan zehar asko jaten ez genuenez, ez genuen energia askorik. Beraz, lo egiten genuen ahal zen bakoitzean, atsedean hartzeko. Ez duzu sentitzen hain nekatuta zaudenik, baina etzan eta lo gelditzen zara. Agian hiru orduz egiten duzu lo eta ez zara konturatu ere egiten.

### **Eibarrera itzuli zarenean indar falta hori igarri duzu?**

Hemen betiko moduan sentitu naiz energia eta logure aldetik, baina han bai, igartzen zen indar falta hori. Adibidez, lehen egunean bost minututan eta nekatu barik egiten genuen ibilbide bat, baina 15. egunean bi minutu gehiago behar genituen bide bera egiteko eta nekatuta amaitzen genuen.

### **Janari faltari, gainera, lehiak gehitu behar zaizkie, askotan nahiko fisikoak izaten direnak.**

Bai, hori da, baina Lur Errekondo eta Patxi Alonso aurkezleek “3, 2, 1... hasi” esaten zutenean, adrenalinari esker dena ahaztu eta proba topera egiten duzu. Hori bai, proba amaitzerakoan, lurrean etzan eta ezin zara mugitu ere egin.

### **Orain, saioa nola ikusten duzu etxetik?**

Programa ikusten ondo pasatu dut. Noski, bertan parte hartu dudanez, emozio berezi batekin ikusi dut.



**“Nik modu batean bizi izan dut, baina ez nekien telebistan nola ikusiko zen eta jendeak zer esango zuen”**

Era berean, urduri ere egon naiz. Izan ere, nik modu batean bizi izan dut, baina ez nekien telebistan nola ikusiko zen eta jendeak zer esango zuen.

### **Eta, zentzu horretan, pozik zaude?**

Bai! Sare sozialetan jendeak kritikak egiten ditu, baina ezin zara guztien gustukoa izan. Hori horrela izanda, berba onak jasotzerakoan babesaren sentitzen da.

### **Zer moduz sentitzen zara telebista munduan?**

Gustatzen zait, baina momentu baterako. Hortik kanpo bizitza dut eta gauza biak banatzen jakin behar da. Eguaztenetan ETB 2-n egiten den eztabaidara joaten naiz eta nire papera egiten dut, baina gero hankak lurrean ditut eta nire bizitzarekin jarraitzen dut.



## BAZKIDE zertarako?

Eibarko ume eta gazteen artean euskaraz irakurtzeko eta idazteko trebetasuna lantzeko proiektuak babesteko, esate baterako



### **Txikitto! aldizkaria**

...eta kitto!-k Eibarko Lehen Hezkuntzako ikasle guztien artean eskolan bertan banatzen duen hilabetekaria da. Ume eta gazteen artean idazteko eta irakurtzeko trebetasunak lantzeko aldizkaria izateaz gain, ikastetxe, familia eta ikasleen arteko harremanak euskaraz izan eta ondo pasatzeko aukera ematen digun euskarria ere bada. Elkarlanean egiten da, ...eta kitto! eta ikasketeen artean, eta edukiaren zati handi bat ikasleek eurek egiten dute.

# zarelako **g**ara

*Egin zaitez bazkide!*



## SD Eibar-Oviedo kanporaketa bihar eta eguaztenean jokatu da

Bihar arratsaldeko 18:30ean ekingo dio Joseba Etxeberriaren taldeak 1. Mailara igotzeko lehenengoko kanporaketari. Partidua Oviedoko Carlos Tartieren jokatu da eta 600 armagin baino gehiago izango da neurketa ikusten martitzenean klubean egindako zozketan adjudikatutako 424 sarreraren ondoren. Sarrerak dituzten guztiek, gainera, jarlekua hartu dezakete klubak aterako dituen autobusetan. Asturiarrek 6. postuan amaitu dute Liga, aurreko domekan Ipuruan 4-3 galdu eta gero. Itzulerako partidua Ipuruan jokatu da eguazten gauean, 21:00etan hasiko den norgehiagokan. Kanporaketa berdinduta egongo balitz behin luzapena amaitzerakoan, SD Eibar-ek egingo luke aurrera, Liga 3. postuan amaitu zuelako. Bestalde, armaginek azken kanporaketarako txartela lortuko balute, partidua horiek hurrengo bi domeketan jokatuko lirarteke, bietan 18:30ean; beti ere lehenengoa bestearen zelaian (izan Espanyol edo Sporting) eta bueltakoa Ipuruan, ekainaren 23an.

## Ibarra eta Azpilikueta pilotariek aurrera egin dute lau eta erdikoan

Deporreko bi pilotari sailkatu dira lau eta erdiaren barruko Gipuzkoako txapelketako finalerdietarako. Biek, gainera, finalerdi horiek Astelena katedralean jokatzeko aukera izango dute, eibartarren eta lazkaotarren arteko lehia hartuko duen domekako jaialdian. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da, kadete mailakoarekin, ondoren jubenilen artekoarekin jarraitzeko. Lehen partiduan Azpilikueta eibartarrak Oartzabal izango du aurkari, eta bigarrenean Eibarko Ibarrek Izagirre lazkaotarra aurrez aurre.

Final laurdenetako partiduetan, Azpilikueta eta Varona eibartarren arteko lehia oso parekatua izan zen



azkenera arte, Azpilikueta markagailuan tartetxoa lortu zuen arte. Ibarra jubenilak (**argazkian**), bestalde, atzetik hasi arren, ondo jakin izan zuen neurketa irauli eta 22-15 nagusitasunez Ataungo aurkari zailari irabazten.



## Azken bi Kopa Mek Eibar Eskubaloientzat

Andoni Perezek zuzentzen duen Zilarrezko Mailako taldeak 24-28 irabazi zion Elgoibarri bere etxean, modu horretan bigarren jarraian irabaziz Gipuzkoako txapelketa. Atsedendira gol bakarrek abantailarekin joan ziren Mek-ekoak, eta batez ere bigarren zatiaren hasieran handitu zituen aldeak Eibarko taldeak, zazpi goletik gorako tarte irekiz. Hori bai, neurketa kontrolatuta izan zuten denbora gutzian.

Emakumezkoen Oria Kopa hori, dena dela, ez zen Eibarko eskubaloiklubak zapatu horretan irabazitako bakarra, Mikel Casadok zuzentzen duen gizonezkoen bigarren taldeak ere, oso jokalaririk gazteekin, partiduko azken penaltiarekin Urumea Kopa bereganatzea lortu zuelako. Zumarragan jokatuako partiduan bertako Urola taldeari 34-35 irabazi zioten probintziako 1. Mailan jokatzeko duen taldekoek.

## Herriko atletek bikain jarduteaz aparte, Imanol Egidazu gorenengoen mailan

Madriren jokaturako Espainiako Komunitateen arteko Proba Konbinatuen Txapelketan, urrezko domina eta Deporrekoen lorpen arrakastatsuena Imanol Egidazuk lortu zuen, decathloneko S20ko kategorian hainbat marka hautsiz eskuratutako 7.507 puntuekin. Bere marka pertsonala (6.819 puntutan zuen), Euskadiko errekorra eta inoizko Espainiako bigarren markarik onena lortzeaz gain, Munduko S20-ko txapelketan parte hartzeko marka minimoa lortu zuen. Ezin dakioker gehigo eskatu!

Bestalde, Gasteizeko Mendizorrotzako estadioan jokatu zen Euskadiko S18-20 kategorieta-ko txapelketan, Elene Arrazola ez zen atzean geratu eta Europako S18 mailarako minimoa lortu zuen 100 m-ko lasterketan, 11,93

segundorekin; marka horrek Euskadiko txapela janzteko balio izan zion, eta gauza bera eskuratu zuen 200 m-ko finalean, 24,77 segundorekin. Beste hiru atleta ere podiumera igo ziren, kasu horietan bigarren postuan: Izaro Bernedo, 5.000 m martxa proban, Ugaitz Gartzia 2.000ko oztopoetan eta Enara Magunazelaia xabalinarekin. Martina Ibarbia eta Nora eta Silvia Martinez ere izan ziren Deportiboaren ordezkari bezala parte hartzen.

Donostian jokaturako parte-hartze askeko probetan, Kepa Markez eta Elene Beitia 100 m-ko abiadura lasterketetan izan ziren, eta Garoa Magunazelaiak xabalina jaurtikitant hartu zuen parte. Azkenik, infantil mailako lau atleta Gipuzkoako selekzioa ordezkatzuz Basaurin



Imanol Egidazuk gustua hartu dio markahautsari; progresio ikaragarria egin du.

jokaturako Euskadiko Eskolarteko Txapelketan izan ziren: pertikarekin, Maialen Zenarruzabeitia (bigarren), Marko Málaga (hirugarren); eta xabalinarekin, Haizea Magunazelaia (hori ere bigarren).

## Unbek errugbiko Erreginaren Kopa hartuko du berriro

Iaz txapela eta guztiz jabetu zen Eibar Rugby Taldeak oraingoan ere hartuko du errubi 7 modalitateko Erreginaren Kopa. 12 izango direla txapelaren bila jardungo duten taldeak, lau multzotan banatuta: A multzoan, Eibarrekin batera, Cisneros eta Sevillako bi taldeak izango dira (Cocos eta Uni Sevilla); B multzoan, Majadahonda, Turia, Jabatos eta SANSE Scrum; eta C multzoan, A Coruña-ko CRAT, Sant Cugat, Olimpico Pozuelo eta Hortalezeta. Zapatuan 18 partidu jokatu dira guztira, sei multzo bakoitzean, guztiak guztien aurka, eta hortik aterako dira domekan, azken sail-



kapena jokoan dela, bakoitzaren postuak zehaztuko dituzten azken norgehiagokak. Eibartarren biharko partiduak hauek dira: goizeko 11:50ean Cocos-en aurka, 14:34an Sevillako Uniren kontra, eta 17:18an Cisneros aurrean dutela.

## Ikasturte berrirako matrikulazioa zabaldu dute Xake Eskolakoek

Klub Deportiboaren xake batzordeak 2024-25 ikasturterako xake eskolaren klaseak prestatzen dihardu eta dagoeneko ikasturte berriari begira izen-ematea ere zabaldu du 8-12 urte bitarteko haurrentzat. 10 ikasleko bi talde egongo dira, eguaztenetan (hasiberrientzat) eta barixakuetan (jarraitzen dutenak). Deporreko egoitzan eskainiko diren klaseak irailaren 18an hasiko dira. Xehetasun gehiagorako: [www.deporeibar.com/xakea](http://www.deporeibar.com/xakea) webgunean eta [xakea@deporeibar.com](mailto:xakea@deporeibar.com) helbidean lortu daitezke.

## Herriko igerilariak probaz proba ibili dira gaurko San Juan Sariaren aperitibo gisa

Eibar Igerixan taldeko ordezkariak, sasoiak agindutakoari jarraituz, geratu barik dabilta azken aldian. Horrela, aurreko zapatuan Gorlizeko hondartzan jokaturako 82. CD Bilbaoko Trabiesian klubeko Master mailako hiru ordezkari hartu zuten parte hiru kilometroko proban: Gorka Areitioaurtena 10. postuan sailkatu zen, Ander Salaberria 13.a izan zen eta Marina Azpiazu 112. tokian helmugaratu zen.

Bestalde, VII. Gipuzkoako Opean boskote batek ordezkatu zuen gure herriko kluba: Paula Calvo, Nora Guinea, Itsaso Castrillo, Jon

Osa eta Asier Gomez izan ziren Donostiakoan. Paula Calvok eta Jon Osak hor ere garaipen bidetik jo zuten eta, horrela, Calvok urrezko eta brontzezko bina domina irabazi zituen, Osak urrezko bat eta brontzezko bi jasotzen zituen bitartean.

Azkenik, Oñatin jokaturako XIII. Udako Gipuzkoako Torneora eibartarrek 11 igerilariz osaturako taldea eramán zuten, bost mutil eta sei neska, guztira lehen postu bat, bigarren bost eta hirugarren lau eskuratzeko. Jokin Onekak 100 metro estilotan jokaturako proba irabazi zuen.



Gaurko protagonismoa Ipurua kiroldegiak hartuko du, bertan jokatuko baita San Juan Sariaren 35. edizioa, ez dira urte gutxi. Probak arratsaldeko 20:30ean hasiko dira.



## Parte-hartze bikaina Galdaramiño Igoeran

Ez bakarrik kopuruari begira, aurreko urteetako zifra gainditu baitzuen; emakumezkoen parte-hartzea ere azpimarratzekoa izan zelako, 21 atletekin (%25). Txapelak, hori bai, iaztik hona ez dira buruz aldatu, orain dela urtebete egindako bidetik Unai Fernandez eta Oihane Sarasketa eibartarrak izan zirelako berriro azkarrenak heltzen. Podiuma horrela geratu zen: Unai Fernandez (1:24:51), Orozkoko Koldo Etxebarria (1:24:59) eta Eneko

Fernandez (1:27:17), gizonezkoetan; eta Oihane Sarasketa (1:41:35), Andikona Albizuri (1:52:58) eta Ainhoa Portugal (1:56:17), emakumezkoetan.

Urtero lez, adimen urritasuna dutenekin osaturiko Atzegi taldeak bestalde, ibilbide egokitu osatu zuten bi taldetan banatuta. Guztira 55 parte-hartzaile izan ziren eta, Urkiko bolondresen laguntzarekin, egun ederra igaro zuten, martxaren ostean sagardotegian bazkaltzeko.

## Inda Team-ekoak Espainiako txapelketetan

Inda Team klubeko Sandra Rochak eta Jhon Nunezek aurreko asteko lau egunetan Guadalajaran jokaturako Espainiako txapelketetan hartu dute parte. Sandra Rochak k1 light eta kick light modalitateetan lehiatu zuen, zilarrezko domina irabazteko 60 kilorainoko mailan, finalean puntuetara galduz. Jhon Nunezek, bestalde, low kick modalitatean hartu zuen parte, 63'5 kilorainoko mailan. Borrokalari biak Euskadiko selekzioaren parte izan ziren.



## Iñaki Perosanz Garmendia

2024/06/02

NAHI ZENUEN BEZALA  
bizi izan zinen  
azken unera arte.  
ESKERRIK ASKO, Iñaki!  
Betira arte!



- ZURE KUADRILLA -

## Joaquin Uriguen Aranzabal

1. URTEURRENA  
2023/06/08



Urte bat pasa da joan zinenetik  
ez da erraza izan zu kentzea egunerokotik.  
Egun tristeak alde batetik,  
aurrera egin dugunaren esperantza bestetik.  
Joaquin, zure bizipozaren eskutik,  
musu haundi bat bihotz-bihotzetik.

- MAITTE ZAITTUEN ZURE EMAZTIA -

## Luis M<sup>o</sup> Osoro Arregi

1. URTEURRENA  
2023/06/08

"BETI IZANGO  
ZAITUGU GOGOAN,  
maite ditugunen  
argia ez delako  
sekula amatatuko"

ASKO MAITE ZAITUGU  
- ZURE FAMILIA -



## Alfonso Rodriguez Fernandez

7. URTEURRENA  
2017/06/10

"Lagun on bat aurkitzea  
oso zaila da, galtzea  
hainbat zailagoa, eta  
ahaztea ezinezkoa"

- ZURE LAGUNAK -



## Iñaki Galparsoro Garcia

11. URTEURRENA  
2013/06/05

11 URTE  
IÑAKI GABE

"Gure bihotzetan  
jarraitzen duzu"

- ZURE FAMILIA -



●●●  
**FUNEUSKADI**  
Funeraria

●●●  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdepeña, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

# Izengabeak lehiaketaren finalak kontzertuz beteko ditu barixaku eta zapatu gauak

Debabarreneko Izengabeak musika lehiaketaren bigarren fasea egingo da gaur eta bihar, finalista geratu diren taldeen zuzeneko emanaldiekin. Kontzertuetarako bi eskenatoki ipini dituzte, Untzagan eta Txaltxa Zelaian (jubilatuen gaineko terrazan), eta bertan arituko dira finalistak bi egunetan.

Gaur 20:00etan abiatuko da lehiaketaren finala, Txaltxa Zelaian, Aitzol Urkiza eta Iñigo Bravok osatzen duten Dei taldearekin. Mutrikun sortutako proiektua da, eta pop-rock kutsuko abestiek osatzen dute bikotearen ardatza, gitarra akustiko eta elektrikoak eskuan, eta teklatu eta harmonikak lagunduta. Orain dela gutxi Zai-Zoi tabernan aritu zen taldea. Haien atzetik Unai (20:40an) eta Rythmachine (21:20an) igoko dira taula gainera. Ia batera, 20:20an hasiko dira Untzagako kontzertuak. Slide taldeak emango du lehena, eta haien atzetik Painapple (21:00etan) eta Ur (21:40an) taldeen txanda izango da. Slide taldeak soul, blues, funk eta rocka egiten du eta hauek dira osatzen duten taldekideak: Chuma Segura (gitarra, hitzak, konposaketa, moldaketak), Jorge Perez "Patax" (bateria, hitzak), Carlos Sanchez de Medina (baxua), Gabriel Peso (teklatuak), Raul Gil (tronpeta), Jose Vera Bello (saxo tenorra), Roberto Bazan (tronboia), Erin Corine (ahotsak), Deborah Ayo (ahotsak), Milena Brody (ahotsak) eta Lady Pepper (ahotsak). Painapple iaz sortutako pop punk taldea da, eta Katarine Berruetak, Asier Cascanek, Andoni Condek, Gorka Martinez de Lagosek eta Josu Cascanek osatzen dute. Eta Ur, berriz, Azkoititik datorren rock, soul eta funk musika taldea da, Urtzi Azkuek, David Gorospek eta André Canto y Mellok osatutakoa.

Biharko kontzertu guztiak Untzagan izango dira. Lehiaketako finalista-zerrendarekin jarraituz, Orbainak (21:00etan), Bichorraro (21:30ean) eta Makis 37 (22:00etan) taldeak arituko dira. Bichorraro gaitzizenaren atzean Gorka Vazquez ermuarra dago, eta Makis 37 Elgoibarko Musikarieren Elkartearen



Izarok "Cerodenero" lan berria aurkeztuko du.

bueltan 2021ean sortutako taldea da. Rock musika egiten du, eta lau kidek osatzen dute: Gaizka Uragaga (bateria), Miguel Beraza (baxua eta ahotsa), Julen Gutierrez (gitarra eta ahotsa) eta Alex Gonzalez (gitarra eta koroak).

## Izaroren kontzertua bihar 23:00etan

Eta lehiaketari amaiera biribila emateko, Izaro Andresen kontzertua hasiko da, bihar 23:00etan. Mallabiarrak ez du aurkezpen beharrik, musikagintzan bide propioa egin du eta. 2023ko abenduaren 8an *Cerodenero* izeneko disko berria kaleratu zuen eta aurten hori aurkezteko tourra egiten ari da. Lan kontzeptuala da, pop, folk eta elektronika ukituekin, eta bihar zuzenean entzuteko aukera egongo da Untzagan. Emanaldi guztiak doan dira.





## Poesia eta musika gaua Ibarkurutzeko iturrian

Poesia eta Musika Gauaren 11. edizioa egingo da bihar, 19:30etik aurrera, Ibarkurutzeko iturri inguruan. Maite Lorenzok zuzendutako ekintza horretako protagonista poesia den arren, musikak girotuko ditu saioan parte hartuko duten errezitatzailen berbak. Urtero San Juan jaien atarian egiten den ekimen horrekin "poesia gure herritarren artean zabaldu eta belaunaldi berriei gerturatu" nahi du antolatzaileak. Azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere belaunaldi ezberdinetako poetak, Eibarkoak eta kanpotik etorritakoak elkartuko dira, zuzenean arituko diren musikariaren laguntzarekin poesia errezitatzeko.



## Cristina Hoyos dantzariari buruzko bideo-forum saioa

Pagatxa emakume elkarteak zine-forum saio berria antolatu du gaurko. Alejandro Marin zuzendariaren *Te estoy amando locamente* filma proiektatuko dute eta saioa 18:00etan hasiko da, Armeria Eskolako aretoan. Dinamizatzailea Izaskun Rodriguez Elkoro izango da. Eta astelehenean, berriz, Emakumeen Istoriako zikloko bideo-forum feministan, Cristina Hoyos dantzariari buruz arituko dira, 18:00etatik aurrera Andretxean, Patricia Perex Cotok dinamizatuta.



## Udan euskaraz ikasteko eskaintza zabal eta berezia Eibarko euskaltegietan

Gazteak euskaraz ikastera animatzeko, Eibarko bi euskaltegietan C1eko ikastaroaren prezioa 20 eurokoa izango da 16-18 urte bitartekoentzat. Eibarko Udal Euskaltegiak ikastaro trinkoak emango ditu udan, B2 eta C1 mailetan (HABEren deialdi itxira aurkezteko aukera), ekainaren 26tik uztailaren 23ra. Klaseak astelehenetik barixakura izango dira, 09:00etatik 12:00etara, eta matrikula ekainaren 20ra arte egin daiteke. Gainera, uztailean eta irailean autoikaskuntza eskainiko dute B1, B2 eta C1 mailetan. Eta AEK euskaltegian ekainaren 28ra arte egongo da izena emateko aukera, maila guztietan. Gainera, uda honetan ikastaroak online egiteko aukera dago (A1etik C2raino), eta matrikula [www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean egin daiteke.

Euskaltegi bakoitzeko eskaintza zehaztasun osoarekin ezagutzeko, bertara joan edo telefonoz deitu daiteke: 943 70 09 12 / 688 698566 (Udal Euskaltegia) eta 943 20 13 79 (AEK).

## Zabalik dago Sanjuanetako marmitako lehiaketan parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea

Eibarko Udalak XXIX. marmitako lehiaketa antolatu du Sanjuanetarako, eta izena emateko epea ekainaren 18ra arte egongo da zabalik.




Lehiaketa gastronomikoaren edizio berria ekainaren 25ean, 11:30ean, egingo da Untzaga Plazan. Izen-ematea online egiteko, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa bete behar da. Informazio zehatza ere bertan ikus daiteke.



soluzioa



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

	7	9			4		
8				4			7
4			1		3		
3				7			5
	2						1
	1			5			3
		5			9		4
9		6					5
		3				9	6

Z	N	A	S	P	I	C	R	L
N	S	I	E	C	V	I	P	A
P	I	B	G	I	E	N	O	E
C	H	R	Z	R	H	I	J	
E	L	I	C	C	H	V		
B	E	Z	L	A	H	B	R	C
B	R	C	L	O	L	Z	S	
L	S	T	H	R	E	L	C	V
L	T	C	H	R	E	A	L	N

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

8				5			1
	2						3
				9	7	8	6
			8	5		6	
3	2					5	4
	5		3	6			
1	3	7	2				
	9						7
2		9					8

B	L	E	R	O	P	O	
P	O	P	A	R	O		
B	O	P	R	E	C	O	
C	A	R	O	C	P	A	R
P	R	O	E	L	L	P	O
C	A	R	O	C	P	A	R
P	R	O	L	O	Z	O	
S	C	A	R	O	R	O	
N	E	R	O	P	O		

soluzioa

# Ekainak 7/13

## BARIXAKUA 7

### BRIGADA MOREA

**17:30** Autodefentsa feminista eta Brigada Moreko saioa, Jaixak Herrixak Herrixandakoren eskutik. Arrate Kultur Elkarte.

### ZINE-FORUMA

**18:00** "Te estoy amando locamente" (Zuz.: Alejandro Marin). Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Armeria Eskola (aretoa).

### BISITA GIDATUA

**18:30** "Hilekoa(k)", Ainhoa Aldazabal Gallastegik eta Skolastikak sortutako erakusketara bisita gidatua, euskaraz. Andretxea.

### POESIA

**19:00** "Poesía eres tú" taldearen errezitaldia. Untzaga gizarte etxea.

### MUSIKA

**20:00** Izengabeak musika lehiaketa: Dei.  
**20:40** Unai.  
**21:20** Rythmachine. Txaltxa Zelai.  
**20:20** Slide.  
**21:00** Painapple.  
**21:40** Ur. Untzaga.

### IGERIKETA

**20:30** XXXV. San Juan Igeriketa Saria. Ipurua kiroldegia.

### BOXEO GAUA

**22:15** "El Tigre de Amaña" I. Memoriale". Zazpi borroka amateur. Astelena frontoia.



## ZAPATUA 8

### KALEAN EHUNTZEN

**11:00/13:00** Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna: "Jar diezaiogun #puntuetakitto indarkeria sexistari". Untzaga.



### DANTZA

**19:00** Ballet Eibarrés. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

### POESIA

**19:30/21:45** XL. Poesia eta Musika Gaua. Ibarburutzeko iturria.



### MUSIKA

**21:00** Izengabeak musika lehiaketa. Orbainak.  
**21:30** Bichorraro.  
**22:00** Makis 37.  
**23:00** Izaro. Untzaga.



## DOMEKA 9

### MENDI-IRTEERA

**09:30** Narrastiak ezagutzeko irteera, Eibarko Baso Biziak-ekin, Aranzadi Zientzia elkarteko Ander Izagirrek lagunduta. Arrajola-Amazabalegi. Untzaga.

## ASTELEHENA 10

### BIDEO-FORUMA

**18:00/19:30** Emakumeen Istorioak: Cristina Hoyos. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Sarrera librea. Andretxea.

## MARTITZENA 11

### HITZALDIA

**18:00** "Extranjería cerca de ti". Eibarren bizi eta dokumentazioa tramitzeko egoeran dauden herritarrengana atzerriartasun-bulegoa gerturatzeko saio irekia. Erreal Plaza.



### HITZALDI-TAILERRA

**18:00/20:00** "Sexu aniztasuna hirietatik at", Hiruki Larroxa kooperatibaren eskutik. Andretxea.

## EGUAZTENA 12

### BISITA GIDATUA

**19:00** "Hilekoa(k)", Ainhoa Aldazabal Gallastegik eta Skolastikak sortutako erakusketara bisita gidatua, gaztelaniaz. Andretxea.

### DANBORRADA

**19:00** Umeen entsegua.  
**20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (B. Sarasketa).

## EGUENA 13

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

### DANTZA

**20:00** Biraka Dantza. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

### Ekainaren 14ra arte:

- "HILEKOA(K)" Ainhoa Aldazabal Gallastegi-Skolastikaren erakusketak (Andretxea).

### Ekainaren 16ra arte:

- "LATIA EMON!" birziklatutako latekin egindako hormairudiak (Untzagako gizarte etxea).

### Ekainaren 18ra arte:

- DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLAK (Portalea)

### Urriaren 20ra arte:

- "MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK" (Armagintzaren Museoa)

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **8an:** 22:30
- **9an:** 20:00 (2 Aretoa)
- **10ean:** 19:30

**“Hasta el fin del mundo”**  
DRAMA



2023/AEB/129'  
Zuzendaria: Viggo Mortensen  
Aktoreak: Vicky Krieps, Viggo Mortensen, Solly McLeod  
**Western/Sezesio Gerra**

## 2 ARETOA

- **8an:** 22:30
- **9an:** 17:00, 20:00 (1 Aretoa)
- **10ean:** 19:30

**“La promesa de Irene”**  
DRAMA



2023/Kanada/121'  
Zuzendaria: Louise Archambault  
Aktoreak: Sophie Nélisse, Dougray Scott, Andrzej Seweryn  
**Biografikoa/Nazismoa**

## ANTZOKIA

- **8an:** 22:30
- **9an:** 17:00, 20:00
- **10ean:** 19:30

**“Bad Boys: Ride or Die”**  
AKZIOKOA



2024/AEB/115'  
Zuzendaria: Adil El Arbi  
Aktoreak: Will Smith, Martin Lawrence, Vanessa Hudgens  
**Sekuela/Poliziakoa**

## 2 ARETOA

- **9an:** 17:00

**“Deep Sea. Sakontasunera”**  
ANIMAZIOKOA



2023/Txina/112'  
Zuzendaria: Tian Xiao Peng  
**Fantastikoa/Itsas abenturak**

**Izadi**  
LORADENDA  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**EIBARKO AEK EUSKALTEGIA**

23-24 UDAKO IKASTAROAK ONLINE (A1etik C2raino) [www.aek.eus](http://www.aek.eus)

24-25 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA ZABALIK  
Ekainaren 28ra arte! Gorde lekual!

- 16-18 urtekoentzako DIRU-LAGUNTZA BERRIA C1 maila prestatzeko (aurrematrikula 20 euro bakarrik)
- A1 maila lortzeko ikasleentzako DIRU-LAGUNTZA BERRIA (aurrematrikula 20 euro bakarrik)

Sostoa kalea 1, 1º 943 20 13 79 [eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)

**B** eta kitted!

**BERBETAN jaialdia**

“GORA BIHOTZAK” MUSIKA ETA DANTZA IKUSKIZUNA  
HH eta LHko ume eta familiei zuzenduta

**Ekainaren 13an**  
arratsaldeko 17:00etan Errebal plazan  
Musika, dantza, sorpresak, barreak...  
primeran pasatuko duzue!

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **OIHAN!** Maiatzaren 31n 7 urte bete zenuzaten-eta. Besarkada erraldoiak famelixako guztion partez, txapeldun!



Zorionak, **MAIALEN**, gaur 8 urte! Musu bat etxeko danon eta, bereziki, Markel eta Aitana lehengusu-lehengusiñen partez.



Zorionak, **INHAR**, astelehenian 2 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekeun partez.



Zorionak, **MALEN!** Domekan 6 urte beteko dozuz-eta! Egun politta pasau eta jarraitu gure bizitzak zorutzen! Maite zaittugu!




Zorionak, **JARE**. 11 urte, zu bai neska haundi! Jarraitu dantzan egitten. Musu haundi bat ama, aita, Jon eta amama/yayoen partez.



Zorionak, **CLAUDIA**, etxeko txikitxu, domekan urtetxua beteko dozu!! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Paülen partez!!!



Zorionak, Guapitox: **JOKINE** (bixar, 21) eta **MIRENE** (martitzenian, 26) urtiak beteko dittue-eta. Jarraitu holan. Patxiuak guztion partez.



# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
  - Etxebizitza salgai Estaziño 4an (4. pisua). 4 logela, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekuarekin. 661874548.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Vielhan (Baqueira). 75m<sup>2</sup>. 2 logela, 2 komun eta egongela-jangela-sukaldea. Igogailua eta garagea. Sauna eta igerilekua. Jolas-guneak (futbolina, billarra eta ping pong-a). Ekain, uztaile edo abuztu osoa: 1.500 euro. 688840712.

- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 607841549.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Lokal industriala salgai. 667895597.

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Eibarko erdigunean. 631419458.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. 643708616.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 653075865. Matilde.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. Orduka. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldean, gauzez eta asteburuetan. 640821269.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 677259560.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 625200924.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 688728655.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (sozio-sanitario tituluarekin) edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. 624828670.

- Emakumea eskaintzen da kamarera edo saltzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. 617383494.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631141454.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.

- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 638515953.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 643933039.

### 4.2. Langile bila

- Euskeraz dakien neska behar da uztailean Deban umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Fisioterapeuta bat behar da Eibarko kontsulta batean. Euskera eta esperientzia baloratuko da. 699632248 watsapez edo ane\_mendia@hotmail.com
- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun osoz lan egiteko pertsona bat behar du, ekaina bukaeran edo uztaile hasieran hasteko. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
- Sukaldaria behar da ostalaritzako proiektu berri baterako. Bertako ardura nagusia bere gain hartzeko gaitasuna beharko luke. Bidali curriculum: proiektuostalaritza@gmail.com.

- Gaixo batek zainzailea behar du etxean laguntzeko. Orduka. luengo41@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Jatetxea ixten dela-eta, mahai, silla, jarleku, makineria eta baxera edo ontziteria salgai. 682737282.

### 6.2. Eman

- 3 hilabeteko hiru katakume oparituko nituzke. 632252602.

# EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

## UDA IKASTAROA

### • Aurrez aurreko klaseak :

- Egunero 3 eskola-ordu + tutoretzak
- Mailak: B2 eta C1
- Ekainaren 26tik uztailaren 23ra
- Ordutegia: 9:00 - 12:00

*HABERen deialdi itxira joateko aukera*

### • Autoikaskuntza:

- Uztailean eta irailean
- Mailak: B1, B2 eta C1
- Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaioak



Informazio gehiago:  
EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA  
Bilata Eder, 10  
943 70 09 12 / 688 698 566  
euskaltegia@eibar.eus



<https://www.eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/udal-euskaltegia>





Bide erraza aukeratu zenezakeen.  
Hala ere, eibarzalea izatea erabaki zenuen.

Armagin izatea erabaki zenuen,  
ahalegina zure ikur bihurtuta.

Ez, ez da erraza eibarzalea izatea. Inondik ere.  
Eta denak ezin dira armagin izan.

Horregatik, armagin izateko zortea dugunok  
erakuts dezagun harrotasunez.

**AUPA  
EIBAR**

